



¿Os las tomáis como halagos o como recursos fáciles de la prensa?

A nosotras lo único que nos molesta son las mentiras y las injusticias. Las comparaciones, como tú bien sabes, son recursos, no siempre fáciles, de la prensa. En caso de ser halagos, no les damos importancia.

Por ejemplo, ¿nos podéis contar con quiénes os han comparado últimamente?

En un principio estaban bien para que la gente se hiciera una idea, pero lo que ocurre es que siempre son los mismos nombres. Casualmente son bandas que ya casi ni sacan discos (Babes in Toyland) y que por lo tanto hace años que no escuchamos. O que más valdría que dejaran de sacarlos (Hole).

Lo que no ha cambiado demasiado es vuestra mala leche a la hora de escribir las canciones.

Sí y de eso no tiene nadie la culpa, aunque algunos textos estén inspirados en personas que tienen nombres y apellidos, la mala leche es cosa nuestra. De todos modos pensamos que en este trabajo hay de todo.


«Aunque algunos textos estén inspirados en personas con nombre, la mala leche es cosa nuestra»

¿Sentís que os tratan diferente por el hecho de ser mujeres?

Más que tratarnos diferente, no nos saben tratar. Nos referimos al momento en que llegas a hacer una prueba de sonido, donde generalmente sólo hay hombres, y el ambiente se pone tenso, como si nunca hubieran visto a mujeres al mando. Nosotras nos comportamos de igual modo si los técnicos son tíos o tías, o si el público es mayoritariamente masculino o femenino, nos da igual que nos contrate un hombre que una mujer... ¿Anécdotas? A patadas!! La última: llegamos al festival, montamos equipo, hacemos la prueba en tiempo récord, y el típico gracioso que por norma suele meter la pata, dice a través de un walki muy próximo a nuestros oídos: «¿ya han terminado?, diles que tienen 20 minutos para lavarse el coño»... ¿Se lo diría eso a todos los grupos que tocaban en aquel festival? Bueno, nosotras fuimos las primeras en reírnos, porque la cara del chico que sujetaba el walki era de risa... Por supuesto nosotras somos unas chicas muy limpias y empleamos parte del tiempo en bebernos unas cervezas con limón bien fresquitas, a la salud del bocazas, después de hacer casi 700 kilómetros, aunque habríamos agradecido que las duchas hubieran estado en condiciones de ser usadas, sin malos olores y esas cosas.

BAGA BIGA

BOSTONIEK



Betidanik pentsatu izan dut Yoko Ono izan zela Beatles bereiztearen hobendun bakarra. Gerotzik, haren izena entzuten edo irakurtzen dudalarik, botoia edo orrialdea itzultzen dut: ez dut ezer haren ahotik entzun nahi.

Daniel Xeletin/Johane

Nola irakurleari onarrarazi, orduan, Willie Alexanderen aipatzeko, Anne Rearick haren bizilagunari emanen diogula hitza? Lehenik, Willie beti bizirik dago, Gloucesteren, Massachusettsen ("Galeria" film berriaren hastapenean ikusten den leku politean). Beraz, artikulu honetan zerbait onartzen ez baldin badu, zuzentzeko aukera ukanean du. Bigarrenik, Anne barrik itzuli da Iparralderako aldi honetan eta ez du berak eskatu publico mintzatzea, guk diogu egin.

Lau gauza aipatuko ditugu horrekin: Willierien azken itzulia Euskal Herrian, bere taldearekin, duela urte bat eta erdi; disco berria; ekarri duen film berria: "Loco in Euskadi" eta Annek Euskal Herriaz eginko argazkilari lana.

Azken zirkuitoa Euskal Herrian

Noiz eta non kantatu zuen? Iparraldean, Baigorri aritu zen eta Hegoaldean, Donostian

-Altxerri tabernan-, Eibarren eta Ordizian eman zituen kontzertuak. Taldea Persistence of Memory zen, bi saxo, bateria jole bat eta Willie bera teklatueta eta kantari.

Arrakastatsuak izan ziren kontzertuak, anitz deialdirekin. Eibarren bereziki, disco asko saldu ziren.

Proiektu berririk badu itzultzeko?

Segur, baina antolatzea da problema; Iparraldean baditu bizpahiru leku ezagun: Baiona, Donibane-Garazi eta Baigorri, kasu. Urte batez, Maule ondoan ere kantatu zuen. Aldi hartan, Mikel Laboari esker izan ziren kontzertuak Hegoaldean antolatuak.

The East Main Street Suite

Zer atzematen da disco horretan?

Lehenik erran behar da Bostonen Willie «punkaren ugazaita» deitua dela. 1960an hasi zen jotzen. Lehen taldea "The Lost" izan zen. Gero, urte batez, Velvet Undergroundekin segitu zuen, Lou Reed

joan eta 80 eta 90eko hamarkadetan Parisko diskoetxe batekin (New Rose) hamar bat disko atera zituen.

Oraingo honetan denbora hartako bilduma da musika: jazzza, punka, garage rocka eta improbisazioa, detatarik bada. Ezin da hitz batez aipatzen ahal. Hitzen aldetik, badira Gloucesterko istorioak, Fats Walleren kantu bat arramoldatua, bertze kantu bat, haren arrebaren heriotzaz, eta bi zati Euskal Herriarekin lotura dutenak: Laboaren "Baga Biga" eta "Josephine and Jeannot", Donibane-Garaziko jende eta giroari buruzkoa.

Williekimilikilikliklik

Nola Williek ezagutu du Mikel Laboaren lana eta nola deliberatu du lan honetan "Baga Biga" kantua sartzea?

Nik nion ekarri musika hori eta biziki maite ukan zuen: «Mikel Laboa jeinu bat da enetako -erraten du Williek-, ez dut hitz bat ere ulerzen, baina maite dut arriskuak harzten dituelakotz bere kantuetan». "Baga-Biga"ren kasuan biziki maite ukan zuen hitzen «klaska».

Zein da Estatu Batuetako entzuleen erantzuna kantu hori entzutean?

Dantzan segitzen dute edo hasten dira. Musikari ihardesten diote. Estatu Batuetan ere holako kantu bat badugu: "Peas, porridge, hot; peas, porridge, cold" deitzen dena, haurrentzat egina eta aspaldian Williek arramoldatua. Ber gauza egiten du "Baga Biga"rekin. Hitzak fonetikoki idatzi zituen bere pianoaren gainean eta pixkanaka bere buruan sartu zitzazkion.

"Loco in Euskadi"
Nork egin du filma? Zer du barnean?

Henri Ferrini deitzen da. Normalki, dokumentalak egiten ditu musikariez, bereziki jazz musikariez. Gero saltzen dizkio «public television» deitzen den kateari, hemen Europen «Arte» duzun bezalako bati. Edo jaialdietan pasaranzen ditu. 8 minutu irauten du honek. Izkusteko poema bat bezala egina da. Willieren izpiritua erakusteko: Parisen hasten da eta gero Baigorri eta Donostian segitzen du. Nahasmahas, argazkiak eta hitzak atzematen dira, eratxikidurak bezala. Williek, gazteago zelarik, Willie Loco Alexander izena hartu zuen. Hortik heldu da filmaren titulua.

Norentzat egina da? Hedatzeko proiekturik badea?

Honat ekarri dut, Euskal Telebista interesatua denez ikusteko. Arazaoa Estatu Batuetako bezalakoa da: Willie ez da «izar» bat eta errazago onartuak dira film horiek bazter zirkuituetan.

50.000 argazki Euskal Herrian

Ni 1990. urtean jin nintzen honat lehenik, iparraldea ezagutzera. Idaho, ene sorlekua, bezalakoa zen: biziki ederra, mendiekin. Aise maiteago dut baserria, hiriarekin konparatz gero. Hamar urtez 50.000 argazki hartu ditut, bereziki zuri eta beltzez, Iparraldeaz.

Nola aipa zenitzake?

Pertsona batzen ikuspegia. Ofizialean lana. Harremanetan sartzen naiz jendeekin, gero ezagutzak egiten ditugu, haien edo haien ingurumenaren argazkiak hartzen ditut, intimista moduan.

Non ikusten ahal dira, era-kustokietan, liburueta?

Onenak Parisen atxikiak dira: Vu Galerian, enetako agentzia bezalakoa dena.

Gero erakustokietan agertzen dira: Bostonen, Floridan, Kansan edo New Yorken izan dira era-kutsiak. Hemendik hurbilago, Parisen edo Bordelen, Iparraldean ere bai, Izuran muntatua didate era-kusketa.

www.williealexander.com

Mementoko, diskoa Interenteen bidez igortzen ahal da, edo, bestenaz, Donibane-Garaziko Kukuxka dendant aurkituko duzue, usaian bezala.